



Samedi 25 et dimanche 26 avril 2009

herri kolore UN SUPPLÉMENT DU JOURNAL DU PAYS BASQUE

ÉDITÉ PAR BAIGURA COMMUNICATION SARL • ZA MARTINZAHARENIA 64122 URRUNA-URRUGNE Tél: 0[033]559460250 • RÉDACTRICE EN CHEF: GOIZEDER TABERNA
Supplément écrit par Jon GARMENDIA, Gaxuxa ARRANBIDE et Marie FLEURY • Publicité : Pausu Média - Anton ETXEBERRI

*au cœur
du pays basque*



EGITARAU SOMMAIRE

Basaizea : pour la
langue et le pays

Pages II et III

Argazki galeria
historiari beha

IV eta V Orriak

Nafarroaren
eguna : Besta
baino gehiago

VI Orria

Iritzia :
Floren Aoiz

VIII Orria

NAFARROAREN EGUNA : BAIGORRIKO ERRESUMA

Publicité

le journal
du Pays Basque
Euskal Herriko Kazeta

*l'information indépendante
informazio librea*

Basaizea :

Pour la langue et le pays

Derrière la fête de Nafarroaren Eguna qui rassemble des milliers de personnes, ce sont plusieurs associations et 500 à 600 bénévoles qui travaillent pour organiser une telle manifestation. Parmi ces associations, Basaizea, pour qui cette journée n'est finalement que l'aboutissement de Kulturaldia, programmation culturelle qui s'étale sur plusieurs semaines chaque année au mois d'avril. Mais Basaizea, c'est aussi un groupe de baigorriars très dynamique et déterminé qui s'efforce de faire vivre son canton en euskara tout au long de l'année.



Basaizea elkartea antolaturiko ekimenen kari jolasean aritzeko eskaintza anitz dituzte haurtxoek.

La langue, la culture, le pays

Si on peut dire que Basaizea est née à l'issue de l'organisation d'un premier Nafarroaren Eguna, dont le but, à la fin des années 70 était de renforcer les liens entre les Navarrais des deux côtés des Pyrénées, l'association affiche d'emblée des objectifs clairs : défendre l'euskara, la culture et impulser une dynamique locale. La toute première vocation de la jeune association est trouvée : organiser une semaine culturelle, chaque année en prélude à la journée de Nafarroaren Eguna, autour de thèmes en lien avec la vie économique locale et l'histoire du pays. Car, pour les membres de Basaizea, la culture n'englobe pas seulement les activités artistiques. Non, c'est un sens bien plus large qu'ils attribuent à ce terme : "la culture fait partie de la vie quotidienne et de la façon dont nous construisons notre vision du monde", peut-on lire sur leur site internet (basaizea.com) où une page entière est justement consacrée à leur définition de la culture. Pour Basaizea, tout le monde, de fait, participe et doit participer à cette culture.

Normaliser l'usage de l'euskara

Les objectifs n'ont pas changé, ils se sont mêmes confortés : pour l'association, il est plus que jamais d'actualité de sauver le basque et d'arriver à sa normalisation, comme le rappellent chaque année les membres de Basaizea, à la veille de Kulturaldia : "La normalisation de l'usage de l'euskara est une priorité pour nous. Nous n'utilisons que la langue basque dans notre communication interne mais aussi avec l'extérieur et notamment avec les médias." Tout comme leur site internet qui est exclusivement en euskara. L'association est d'ailleurs engagée de façon active dans la démarche Bai euskarari.

Kulturaldia : un programme de plus en plus riche

La langue, c'est aussi la culture. La semaine culturelle est devenue d'année en année une programmation de plus en plus fournie, étalée sur plusieurs semaines, toujours en amont de la journée de Nafarroaren Eguna. Cette année, Kulturaldia a démarré le samedi 4 avril avec le marché mensuel à Baigorri où on pouvait trouver les habituels produits Idoki mais où étaient invités également

Logicoop, la coopérative des pêcheurs de Ciboure et les artisans d'art locaux. Pour clore la journée, quatre restaurateurs de Baigorri avaient préparé un repas à partir de produits locaux. Un autre temps fort de la programmation a été le kantaldi "Nafarroari" qui rassemblait un grand nombre de chanteurs et musiciens navarrais, à Elizondo le 19 avril. Des poèmes de Peio Jorajuria faisaient le lien entre les prestations des différents artistes qui ont permis, par leurs chants de parcourir toute la Navarre. Pourquoi cet événement à Elizondo ? Les organisateurs expliquent : "Cette année, pour les trente ans de Nafarroaren Eguna, nous avons voulu revenir aux bases : c'est-à-dire renforcer les relations entre les Navarrais. C'était un des buts essentiels de l'organisation du premier nafarroaren eguna, car à l'époque la frontière était fermée". Le dernier événement d'importance de cette riche programmation aura lieu ce soir à Baigorri, il s'agit du spectacle "Betiko doinuen haritik" (voir encadré).

Entre ces événements, d'autres animations ont eu lieu, comme "30 haize (1979 - 2009)", spectacle qui retraçait l'histoire des trente années

de Basaizea en mêlant théâtre, vidéo et danse ; ou encore

"Hazitik Ozia", nouveau spectacle des jeunes danseurs d'Arrola (groupe de danse de Baigorri). Mais aussi une conférence sur l'identité politique dans les territoires navarrais, à travers les siècles, les jeux Xiba et une soirée pour les preso.

Un marché pour faire vivre Baigorri

La volonté de dynamiser le village et le canton n'a jamais cessé non plus de faire partie des objectifs de l'association. Et c'est avec succès que Basaizea a réussi à remettre sur pied en 2005 un marché local, qui avait disparu depuis trente ans, et qui contribue à la vie du village à la fois sur un plan économique et social : "Notre but était à la fois de redynamiser l'économie locale en valorisant les produits d'ici mais aussi de créer un lieu de rencontres." Ce marché a lieu une fois par mois, le premier samedi, on peut y trouver du fromage de brebis, de vache et de chèvre, de la viande de porc, du pain, des confitures... Une petite buvette où est proposé un goûter bien local "arrotze eta xingar" (oeufs et ventrèche) vient ajouter un côté convivial au marché.



Solas eta Jolas pour les enfants

Le projet Solas eta Jolas (Parler et s'amuser) a démarré il y a deux ans, suite aux besoins ressentis par des parents membres de Basaizea qui souhaitaient proposer des activités extra-scolaires aux enfants du canton en basque en faisant intervenir des acteurs locaux sur la base du partenariat, que ce soit dans le domaine sportif, culturel, artistique, etc.

Une animatrice, employée à plein-temps, organise ces activités le mercredi et pendant les vacances pour les enfants de Baigorri et du canton. "Les activités proposées fonctionnent toujours autour d'un projet", explique Argia. En 2008, a été monté un projet autour du théâtre qui a permis la création d'un spectacle : So'in Baigorri, fruit d'une série d'ateliers vidéo, art et théâtre qui ont duré pendant cinq mois. Cette année, c'est le thème de la percussion qui a été choisi.

Pendant les vacances d'été, plusieurs journées thématiques par semaine sont proposées sur le jeu, l'expression corporelle, la danse, la montagne, le hip-hop, la pêche, etc.

Bixentaria: plus qu'un bar

Basaizea mais aussi d'autres associations comme Bagata gazte taldea, l'ikastola, AEK... proposent à Bixentaria des animations tout au long de l'année : repas, concerts, spectacles, conférences, soirées vidéos, réunions d'informations. Le bar est aussi ouvert tous les vendredis et les samedis.

Marie FLEURY

BETIKO DOINUEN HARITIK...

Ce spectacle qui aura lieu ce soir, à la veille de Nafarroaren Eguna, à l'église de Baigorri à 21h sera un mélange de musique classique et populaire, où le public sera également invité à participer. Le titre "Betiko doinuen haritik" ou "au fil des sons de toujours" donne le ton, mais "haria" fait aussi référence aux instruments à corde (*harizko instrumentak*) qui composent l'orchestre de chambre de Tolosa Et Incarnatus.

La soirée aura lieu en trois parties: Et

Incarnatus interprétera tout d'abord une quinzaine de chants traditionnels, arrangés par Mañolo Ezpelet pour orchestre de chambre. "Les musiciens ne chanteront pas car nous voulons faire chanter le public", explique Patxi Bidart. Dans un second temps, l'orchestre jouera avec les gaiteros de Baigorri et d'Iruña puis ce sera au tour du groupe mythique Eltzegor de s'allier à Et Incarnatus pour la dernière partie de ce spectacle dont l'unique représentation aura lieu aujourd'hui.

Publicité

ORDOKI LIKOREAK ERRETEGIA


Parrilan egindako
haragi eta arrainak

Tel.: 948 45 31 65 • Faxa: 948 45 33 78 • ARIZKUN

NAFARROAREN EGUNA

Argazki galeria

Historiari beha



Publicité



HERRIA

Taberna / Elkartea
Abertzale eta ezkertiarren txokoak

- Plater konbinatuak
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak

Ikatz kalea 14
934-422263
Alde Zaharra-Donostia





BIHAR, EUSKAL HERRIA EUROPAN !

BIHAR, NAFARROA EUROPAN !

EKAINAREN 7an, HAUTESKUNDE EUROPARRAK

Bozka Euskal Herriaren Alde !

Bozka abertzale !

EHA 

www.bozkaabertzale.eu

NAFARROAREN EGUNA

BASAIZEAREN ESKUTIK

Basaizea kultur batasuna 1981an sortu zen.

Baigorriko eskualdeko orduko gazte abertzale multxo batek muntatu zuen egitura hau.

Basaizearen sortzea garaiko arrangerer erantzuteko mugimendu orokor batean kokatzen da :

- * Euskararen salbatzea,
- * Euskaldun izaitza zaintzea,
- * Herri dinamika bultzatzea.

Ofizialki sortu aintzin, jadanik bizi zen dinamika hau, gazte multxo berak Nafarroaren Eguna sortu baitzuen 3 urte lehenago, 1978an. Ordutik hunat, elkartearren urteko hitzordu nagusia egon da beti !

Ondoko argazkiak 80garren hamarkadakoak dira, eta Basaizea elkartearren eskaintzaz argitaratzen dira.



herri kolore Samedi 25 et dimanche 26 avril 2009



Arbizuko Udal
www.arbizu.info

*Hizkuntza bat ez da galteren
ez dakitenek
ikasten ez dutelako,
dakitenek
erabiltzen ez dutelako baizik!*

Olatzea
Landa Hotela ★★★ Hotel Rural
948461876
www.hotelolatzea.com

ETXALARKO UDALA

Bulegoak: 948 635 005 Faxa: 948 635 232 E-maila:udala@etxalar.org
Mediku kontsulta: 948 635 105 Landagain eskola: 948 635 215
Igerilekuak: 948 635 261
Kultur etxe e-maila:kulturetxea@etxalar.org Kultur Etxea: 948 635 386
www.etxalar.org

Nafarroaren eguna : Besta baino zerbait gehiago



Urteen joanarekin hain ezaguena eta arrakastatsua bilakatzen bestak sorburua Baigorriko gazte talde baten ilusio eta engaiamenduan dauka. 1978-an izan zen hori.

Garai harten, haien eskualde eta herriaren etorkizunari buruz eztabaideatzeko biltzen ziren erregularki gazte horiek, eta 1977-ko abenduan, taldea publikoki agertu zen Baigorriko trinketean ekitaldi baten antolatzeko. Ekitaldi horretan, Filipe Bidart-ek 233 gaztek izenpetutako mozio/idatzi bat irakurri zuen.

Kezka eta ardura anitz biltzen zituen idatzi horrek. Beste arlo ekonomikoak saihestuz garatzen ari zen turismoa salatzen zuen. Egoera hori tarteko, gazteek kanpora Joan behar zuten lan egitera. Euskara eta euskal kultura ere arriskuan zeudela ohartu eta ohartarazi zuten.

Ondotik, iparraldeko hainbat gazteek idatzi hura izenpetu zuten eta hainbat herrietai taldeak antolatuko

ziren. *Herrian lan eta bizi* lema eta kanpaina garai hortarik dator.

Baigorriko gazteek lau lan ardatz finikatu zituzten : euskara, kultura, garapen ekonomikoa eta laborantzaren defensa.

Kulturari zentzu zabala ematea da helburua : bizi modu eta balore.

Kulturari dagokionez, aste kulturala antolatzea bururatzen zaie. Urte hartarik goiti, gazte talde horrek garapen ekonomikoa eta EH-ko historiari lotutako gaien inguruko aste kulturala antolatuko du apirilean.

Garai berean, herriko gaitero eta dantza taldeak, Nafarroa garaiko taldeekin harremanak lantzeko egun berezi bat antolatzeko erabakia hartzen du.

Lehenengo Nafarroaren egun horretan Nafarroako bost herrialdeak (merindadeak) ordezkatzen zituzten bost talde agertu ziren : Zangozta, Irunerria, Tuteria, Lizarra eta Baxe Nafarrorako Arrola Taldea.

Jendearen partaidetza berriz 300 eta 400 gazteren artekoa izan zen. Abertz-

leak, gazteak eta antolatzaileak. Herriko jendea iztutu egin omen zen. Betti Bidart-ek kontatu izan du egun harten etxeetako leihoak hetsiak zirela. Baina ulertu behar da garai harten giroa nahi-kontsoa zela : 1973-an *Iparretarrak* - en lehen ekintza gertatzen da Bankan.

Giro nahasi horretan, 1980-ko martxoan, aste kulturala baino piska bat lehenago, Itsasuko Txomin Olhagarai eta Baigorriko Ramuntxo Arruiz IK-ko militanteak hil ziren.

Jende anitz agertu zen Txomin-en ehorzketan. Txomin kide zen hainbat elkartea erakutsiak izan ziren. Herriko kontseiluak aldiz demitu egin zuen, Jean Haritxelar alkateak ehorzketan parte hartu zuelako. Herria bi sentimendutan moztua agertu zen.

Urte ainitzek pasa behar izan zuten giroa lasaitu eta Nafarroaren eguna normalizatu zedin, baina hori ere heldu zen.

Hastapenean abertzale eta gazteek parte hartzen zuten. Hegaoaldeko alderdi abertzaleen ordezkarriak ere agertzen ziren egun horretarat, politikoki berreskutatu edo erabili nahian.

1981.ean Basaizea elkartea sortu zen eta hark hartu zuen Nafarroaren eguna zein aste kulturala antolatzeko ardura. Ordutik honat arrakasta eta giro ona bidelagun izan ditu bestak. Bide luzea egin baitu, eta luzeagoa ibiliko duela marrazten du Baigorriko zerugain, antolakuntza lanetara hurbildu den jende gaztearen izpiritua.

Jon GARMENDIA

Apirilaren 26an NAFARROAREN EGUNA 09 EGITARAUA :

11etan : KABALKADA

Ziganteak (Baigorri, Burlata, Amikuze...), Dantzariak (Murtxanteko dantza taldea, Arrola, Berako ihauteriak), Joaldunak, Nafarroako gaiteroak, Uztaritzeko txaranga, Ezpela txaranga, trikitilarriak...

12etan ELIZAKO PLAZAN IKUSGARRIA :

Nafarroako hamar bertsulari : Bixente HIRIGARAI, Julen ZELAIETA, Jon BARBERENA, Mikel MATEO, ETXABE, Mattin LUKU, Mikel XALBADOR, Erik ETXART, Jean Louis LAKA, Bixente LUKU

Murtxanteko dantza taldea, Arrola, Berako ihauteriak

Basaizearen hitza, Karmeleren irrintzina, dantza jauziak, Larraintzina

14etan GARAZI&ORTZAIZEKO IKASTOLAN BAZKARIA :

Herriko plazan (pentzean) : Xalbador ta Ihidoi, Erramun Martikorena, Fermin Valencia, Kixkuxtum's txaranga

HERRIKO PLAZAN :

HAURREN XOKOA :

10etatik 3ak arte : puzgarriak
4etan XIBA herri kirolak haurrendako

DANTZA IKUSGARRIA

5etan : Otxagabiako dantzariak,
Leitzako dantzari taldea, Lizarrako Larraiza taldea
7etan : Larraintzina, dantza jauziak Ezpelarekin

XOKOAN :

4etan : KANTUZ
5etan : ZEZENAREN TALDEA
6etan : ESNE BELTZA
8etan : SAGARROI
11etan : KIKI BORDATXO

Egun guzian :

Oxabi erromeria, Lekak baratze orkestra, KUXKUXTUM'S txaranga, Gaiteroak, Mutiko Alaiaik, Punpeka txaranga...

Konkisten eta zatiketaren gainetik, hegoa eta iparra, nafar nortasunarekin bat

Izpiritu konkretu batekin bultzatu zen orain dela 30 urte lehen Nafarroaren Eguna : Nafarroa Garaia eta Baxe Nafarroaren zatiketa administratibo, ekonomiko eta politiko gainetik nafartar izaera eta nortasunarekin elgarri lotzen direla bi probintziak. Mugen gainetik, Nafarroko lurralde osoaren bateratzea zen helburu. Orduan mugak hetsiak ziren eta Nafarroen arteko harremana eta lotura mozteko saiakera horren aitzinean Baigorriko eskualdea Nafarrez osatutako biztanleak zirela erakusteko sortu zen. Baxe-Nafarroa eta Nafarroa Garaiko muga ez zen natural senditzen eta denak Nafar izanik, guziak elgarri lotzen dituen hizkuntza eta kultura berdina dela erakutsi nahi zen ekimen honekin.

Hiru hamarkada berantago, helburu berdinak agertzen dira aurten burutuko den ospakizunean eta bihar bukaera markatuko duen hilabete kulturaldiak urte guzi hauetako hariari heldu diola era-kutsi digu. Pasa den astean, mendeetan zehar nafar eremueta nortasun eta identitate politikoaren azterketa eskaini zuten Roldan Jimeno, Nafarroko Unibertsitate Publikoko historialariak, Gaizka Aranguren, zientzia politikoetako doktoredunak, eta Filipe Bidart Franche-Comté-ko Unibertsitatean Masterra aurkeztu duen ikerlekak.

Historia non eta nola ikasten den...

Zer da, eta nundik heldu da Nafarroa ? Zer bilakaera izan da mendeetan zehar ? Galdera hauet erantzuten ibili ziren hizlariak zuzenean, bideo konferentzia edota idatziz herritarrek bere historiaren jabe izan daitezen helburuarekin. "Bakoitzak jasotzen dituen erreferentzia historiko bidez kokatzen du bere identitate politikoa. Hala, ez da gauza bera ikastetxeetan erakatsia den gako historikoekin barneratzea, hau da, Nafarroa bere kabuz bildu zitzaiola Espainiari eta gero Frantziari, edo jakitea Nafarroa, euskaldun guzion erresuma zena, bortizki konkistatua izan zela" Gaizka Aranguren zientzia politikoetako



DR

Gaizka ARANGUREN Amaiur 1512-2012 ekimeneko eleduna, Nafarroak burujabetza galdu zuen urtemuga oroitarazten

doktoredunak hitz hauetan eman zion hastapena hitzaldiari.

Izan ere, gauza bat edo bestea ikasi norberaren hautuak jo dezake alde batera edo bestera. Halaike, historiak eta historian gertatutakoek ez dute ezetan gaur egungo diskurtso soberaniazale baten oinarria izan behar Arangurene ustez. "Soberaniazale edozein pertsona izan daiteke, historiako erreferentziak aintzat hartu gabe ere. Baino argi da historiako erreferentziak biziki laguntzen dutela edozein pertsonen identitate politikoaren hautuan" azaltzen du Arangurenak.

Hala izanik ere, orain arte euskal herriarrei kontatu zaiena jakitea importantea dela uste du, funtsean, historia beti irabazleek kondatzen baitute eta ez galtzaleek. Gisa harten, galtzaileen ahotsa askotan isilarazia bada ere, Nafarroaren historiaren errekuperatu nahia ukana dute hizlariak Nafarroa Egunaren bezperan. "Afrikar erraera batek dion bezala, Safari kondakizunek beti kondatuko dituzte ihiztarien gloriak lehoinek beren istorio

kondalariak ukana artean. Hala, gaurkoan lehoinek kondatutako historia entzunen duzue" diote hizlariak.

Euskaldunen eremua hedatzen

"Euskaldunen eremua" deitzen dugunaren historia luzea da. Mende luzetan gertakari frango izan dira gaur egungo egoerarrel hertzeko, beraz, gertakari historiko bati edo besteari garantzi gehiago eman gabe, hizlariak azpimarratu nahi izan dutenaren kontakizuna laburbildu du Roldan Jimeno Nafarroko Unibertsitate Publikoko historiaren bozeramaileak. "Nafarroaren Historia gatazkez horniturik izan da. Gatazka bortitzak eta odoltsuak izan dira euskaldunen eremuan. Konkistazio saiakeretan murgildurik, euskaldunek erresistentziarako borrokan gaitasun handia erakutsi dute betidanik, gaur egun euskal kultura, hizkuntza eta nortasuna bizirik baitira eta bizirik irauten segitzeko konpromisuan ahaleginak egiten baituzte gaur egun ere".

Idazle Grekoek eta Latinoek dute lehen aldiz aipatu euskal zibilizazioa J.Kristo aitzineko lehen mendean. Euskaldunak Baskoiak izendatu zituzten orduan eta euskal eremuaren marrazkia onartu zuten. Gaur egunean historialariak ados dira erraiteko Garona ibaitik Ebroraino zibilizazio bat badela nahiz populu ezberdinak bilduak diren bertan. Zibilizazio horrek erro kultural berdina du eta zibilizazio hunen batasuna egiten duena hizkuntza da. Hau da, euskara da populu ezberdinek osatzen duten zibilizazio batzen dituena.

Oinarri hori harturik, aurtengo Nafarroaren Egunak nafarroen arteko harremanak, elkarlana eta batasuna sustatzen segitzeko hitzordua izan nahi du. Nafarroa Garaia eta Baxe-Nafarroaren artean egun esistitzen diren zatiketa ororen gainetik euskaldunen eremuan bategiteko adibidetzat hartu nahi delako Nafarroaren Eguna.

Gaxuxa ARRANBIDE

Publicité



Lisez les nouvelles de la Navarre dans Lema, le mensuel d'EAJ-PNB

Irakur ezazue Nafarroako berriak, Lema-n, EAJ-PNBko hilabetekaria

Gora Nafarroaren Eguna !

EAJ-PNB Baxe-Nafarroa-Xiberoa
<http://www.eaj-pnb.eu>

BAIGORRIRAT JOANEN NAIZ, JAKINA

Kalamitateren bat tartean jartzen ez baldin bada, han izanen naiz igandean. Ez dut esanen urteoro bezala, batzuetan ezin izan dudalako joan, kartzelan nengoelako edo muga zeharkatzea debekatuta baineukan, baina urte gehienetan bezala, Baigorriera joanen naiz, data seinalatua baita Nafarroaren eguna.

Batzuendako besta besterik ez da. Besta handia bilakatu da, zaintzarik gabe, jende frangoren parranden egutegian leku berezia erdietsi duena. Bain aunitzez ere gehiago da Nafarroaren Eguna, muga gainditu baino txikitzeo parada, gure herriaren ibilbidean Nafarroa zer izan den eta zer den oroitarazteko aukera, gure gaur egungo arazoak agerian uzteko beta. Baigorri biltzen den indarra etokizunaren itxaropena da, gure herria zaitzeko saioek porrot egin dutela aldarrikatzeko egun onenetarik bat.

Aspaldikoa da gure herriak beste batzuek ezarritako mugen kontra daraman borroka. Ez da beti erraza izan, gertatu baita euskaldunok besteek eraikitako mugak barneratzea. Hormak altxatzen lagundu dute historian zehar euskaldun batzuek. Hau ere gure ibilbide historikoaren partea da, ondikotz.

Horma sendoen kontrako lehia izan da batzuetan, beste batzuetan muga ez da harresia izan, komunikabide eraginkorra baizik. Armiarmen modura, belaunaldiz belaunaldi, jostari aritu dira gure aurrekoak estatuek eraiki zituzten oztopoak zeharkatuz, sareak sortuz. Alde batekoak bestaldean atertuz, gerlak, matxinadak, pertsekuzioak, goseak edo armadara joateko deiak zirela eta.


Tafallan bertan, Nafarroako erdialdean, muga zeharkatuz etorritakoen aztarnak nonahi daude: Irisarri, Armendaritz, Oses, Baigorri, Izura... Errepresiotik ihes egiten zuten tafallarrek nora joko zuten, beraz? Tafallako ardoaz mintzo da aspaldiko Baxenafarroako esaldia. Urte askotako egunorokotasunak biziak gorde ditu loturak kanpotik iristen ziren indarren gainetik,

edo azpitik, edo ondotik.

Nafarroaren egunak sare horiek indartzeko ilusioa adierazten du. Egun batez bederen, ez dago inolako mugarik, muga desagertarazten dugu eta herri bat gara. Duela ia 500 urte bereizi zituzten bi Nafarroak bat datoza, eta beste euskaldunekin batera bizirik jarraitzeko ilusioa ospatzan dugu, gure estiloan, kantuz, dantzaz, besta giroan, baina aldarrikapenak ozenki zabalduz.

Ez dut ahantzi lehen urteetan senditzen nuen poza. Ez nuen muga zeharkatzeko adin legala, eta gurasoentzako beharrezko zen. Muga bera odisea bat zen, guardia zibilen menpe gelditzen baikinen, beraiek nahi izan arte. Bain, atzerritarren oztopoa gaindituta Baigorriko kaleek irekitzen zizkigutenez gaziak. Bidaia, zailtasunak, baimenak, dena atzentzen genuen segituan. Nafarroaren Eguna zen, Baigorri geunden, zer gehiago eskatzen ahal genuen?

Ba, horixe bera, muga behin betikoz hausteko armiarma sareak besta giro ederrean josten laguntzeko aukera dugu denok igandean. Baigorri, jakina!



Floren AOIZ
Idazlea



ko asmoarekin eta horrexegatik dakar-kigu bere hitzak Nafarroaren egunaren kari gaurkotasuna har dezaketen ustean:

Eskualdun bestak...Eskuara garbi eta xaharrez eskual jeiak.

Ordean zertako, lehen ez bezalako jei edo besta edo bilzar handi horiek? eta bereziki orai, Frantzian segurik, eskualduna kasik ez deusetaratu den denbora huntan? Huna zertako:

Preseski eskualdun aspaldixko huntan gisa guziz galtzera dohanaren, arras eeztatzerat utzi gabe pitzarazteko, eta norapeit ere higiarazteko.

Gauza ahalkagarria baita, munduan orai bizi diren jendaia edo populuetan den zaharrenak, hainbertze menderen buruan ukho egin dezana hola bere odolari, bere aztura zahareri, bere berechtasunaren ohoreari, bere eskuara mintzaia guzietan den ederrenari, bere lokabe edo libertate guzieri, bere izate osoari, hots! hitz batez bere eskualduntasunari.

Besta eder horiek badute bertze irakuspen bat eta bertze xede bat.

Frantziako eta Espainiako eskualdun guziak, jendakia bat berbera gare. Hori ez zakiten, edo gogoan gutiegi zabilkaten hainitzek.

Batasun horren agertzeoak eta tinkatzeoak dire besta hoietakoz gure bilkhidea.

Horrela, zazpi Eskual-herriak elgarri lothuz egiten dire zazpiak bat. Laphurdi, Basanabar, Sibero, Frantzia aldetik, Nabar, Gipuzko, Bizkai eta Alaba, Espainia aldetik.

Herrialde edo probentzia bakhoxak holako egunetan ditu denen bixtan irakusten hulako joko edo halako dantza edo bertze jostagailuetan dituen antze partikularrak: ... Segur loria baita orduan bazter guzietarik harat bildurikako eskualdunek elgar hain amodiorekin ikustea, elgarrekin han alegeratzea, eskualdun odol bereko garela ezagutzea.

Zein eder den orduan guziek, xutik eta buru-has, elgarrekin kanta dezagun Gernikako arbolarek kanta sustagarria, eta bertze kanta laphurtarrenaren oihu hau:

Agur eta ohore Euskal-Herriari

Zazpi Eskualherriek bat egin dezagun Guziak bethi, bethi, gauden gu eskualdun

I

Agur eta ohore Eskual-herriari: Lapurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari Zazpiak bat besarka lot beitez elgarri

II

Haritz eder bat bida gure mendietan, Zazpi adarrez dena hedatzen arietan. Frantzian, Espainian, bi alderdietan: Hemen hiru'ta han lau, batda zazpietan.

III

Ekhialdego zolan lehenik sorthua Lau mila urthe huntan hunat aldautua; hain handi eta azkar lehen izatua, orai gure haritzaz zein den murriztua!

IV

Gure haritz hau azken mende hautaraino, zaharturik ere zen eder bezain sano. Bere lur hoin garbian oso zagoeno,

Gainetik zoakona behar zen arrano.

V

Hi haiz Eskual Herria, haritz hori bera, arrotza nausiturik moztua sobera.

Oi! gure arbasoak, ez, otoi, ez beira zein goratik garen gu jautsiak behera!

VI

Gureak ziren lehen bazter hauk guziak, Arbasoek utziak, hek irabaziak.

Guri esker Frantziak eta Espainiak daduzkate dituzten eremu handiak.

VII

Mairu beltza zelarik Espainian nausi, Navas-en eskualdunak egin zion jauzi. Hark ekarri gatheak han gintuen hautsi, Eta hilez bertzeak igorri ihesi.

VIII

Orduan gure alde oihuz zauden oro: "Bere lurretan nausi Eskualduna bego; Frantziak, Espainiak, bai orai, bai gero, deus kendu gabe dute gerizatu gogo".

IX

Gureez gure lehen gain libro ginenak ezin ahantzik gaude orduko zuzenak. Zer ametsak ditugun, zer oroitzapenak! Jaungoikoak bakharrik badakizka denak.

X

Ez bahaiz eskualduna lehen bezein handi Apaldu gabe xutik bederen egoadi, Odolez eta fedez bethi berdin garbi, bethi tink atxikia hire Eskuarari.

XI

Zuri gaude otoitzez Jaungoiko maitea Lagun zazu zerutik Eskualdun jendea Begira dezan bethi lehengo fedea Zor zaizkon zuzenekin, ardiets baka

Jon GARMENDIA

Gratien Adema Goyeneche "Zalduby" 1828ko apirilaren 14ean sortu zen Senperen, eta 1907 abenduaren 10ean hil zen. Larresoroko apezgaitegian ikasle gisa aritu zen eta 1833an apeztu zen, gerora, Hazparnen aritu zen sermoilarri iaio eta umore handiko euskaltzale hau. Bertsozale amorrata zen, eta baita bertsu idazle bikaina ere. *La Fontaine euskalduna* deitu zioten bere idazteko trebeziagatik. Bertsu idatzit sorta anitz egin zituen, baina herritarren memoria eta kantuan *Agur eta Ohore Eskual-Herriari* nagusitu da, asko eta askok kantatu dituztelarik bere bertsu hauetan bereak direla jakin gabe ere.

1894ko irailaren 7an *Eskualdun bestak* idatzia argitaratu zuen Eskualduna aldizkarian, garaian egiten ziren besta jendetsuei buruzko hausnarketa hedatze-